

## **SEME-ALABA EUSKALDUN ELEANIZTUNEN GURASOENTZAKO PROPOSAMENAK ETA AHOLKUAK**

### **GU BAI GURASO BERRITSUAK**

#### **OPARITU ZENBAIT HIZKUNTZA BEREGANATZEKO AUKERA**

Gizartea eleanitza da eta gure seme-alabak eleaniztunak izango dira. Hizkuntzak ikasiko dituzte eta hizkuntza horietan sozializatuko dira.

Edozein egoera eta harremanetan bi hizkuntza ofizialetan eroso eta seguru sentitzera iristea abantaila handia izango da beraientzat. Horrek abantaila sozial, laboral eta kulturalak eskainiko dizkie besteak beste.

Eskolan hastea sozializazio bidean une garrantzitsua izaten da: harreman sareak zabalitzen dira, eta harremantzeko moduak aldatzen da. Hizkuntzekin harremana ere aldatzen da: hizkuntza berriak ezagutzen dituzte, kalean dauden ohiturak barneratzen hasten dira eta abar. Batzuentzat euskararekin lehen harremana izaten da, eta beste hainbatentzat jende berria ezagutzeko gaztelaniarekin harremana ere giro horren inguruan hasten da.

Sozializazio bide batean daude eta hizkuntzak behar dituzte bide horretan: jolasteko, lagunak egiteko, ikasteko, eguneroko beharrak asetzeko eta abar. Euskarazko sozializazioan lagundu behar genieke seme-alabei: euskaraz ikasiko dute baina testuinguru gehienetan kalean euskararen presentzia eta erabilera ez da handiegia. Lagundu diezaiegun prozesu horretan.

#### **Zer egin dezakegu?**

- Gertukoa zaintzetik abiatzea
- Inguru hurbilean euskara zaintzea
- Beste hizkuntzekiko jarrera egokia transmititzea

## Gertuko hizkuntzatik abiatzea

---

### Zaindu etxeko hizkuntza edo hizkuntzak. Merezi du.

Gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikatea nahi dugu, helburua, beraz, gehitzea da. Bide horretan abiapuntua etxeko hizkuntza da edo lehenengo hizkuntza izango da. Izan ere, lehenengo hizkuntzan oinarri ona duenak erraztasun handiagoa izango du gero beste hizkuntza batzuk ondo ikasteko. Gainera, ez da garrantzitsua lehenengo hizkuntza hori zein den, edozein izan daiteke: euskara, gaztelania, errumaniera, arabiera... baina kontuan izan behar duguna da lehenengo hizkuntza horretan baliabide asko izatea dela, hain zuzen, beste hizkuntzak ondo ikasteko abiapuntua.

Hori horrela, hizkuntza bat baino gehiago dakizkienak erraztasun handiagoa izaten du hizkuntza gehiago ikasteko, besteak beste, dakizkien hizkuntzetako ereduak eta erreferentziak laguntzen diotelako. Horrenbestez, ikuspegi horretatik ondo uler daiteke lehenengo hizkuntzaren garrantzia: zenbat eta aberatsagoa orduan eta erreferentzia eta eredu gehiago beste hizkuntzei begira.

### Proposamen batzuk:

#### Guraso berritsuak izatea.

- Elkarrizketa eta egoera komunikatibo asko sortzea eta haurra hitz egitera eta elkarreraginean aritzera gonbidatzea behin eta berriz. Adibidez, oraindik hizketan ez dakiten haurren kasuan, beraiek ezingo digute erantzun, baina bai guk gure buruari: Nekatuta zaude? Bai? Etorri ba nirekin. Eseri nire magalean. Ondo? Zer egin duzue gaur? Ez esan, nik asmatuko dut... Haurrak entzuten eta gure jokabideak ikusten ari dira: hitzak, doinuak, erritmoak, tonuak eta beste hainbat elementu entzun eta barneratu ditzakete. Hizketan hasten diren neurrian elkarrizketa ereduak aldatuz joango dira, baina guraso berritsuak izate jarraitu dezakegu.

#### Abestea eta abestiekin jolastea.

- Oso aproposa da hurrei jai berritatik asko abestea: haurren abestiak, betiko abestiak, gure gustukoak... Abestiekin asko jolastu dezakegu: abestiaren erritmoarekin jolastu (azkartu, moteldu...), tonuarekin jolastu (altu, baxu...), erregistro ezberdinetan abestu (pozik, triste, barrez, negarrez...).

#### Ipuinak kontatzea eta ipuinekin jolastea.

- Ipuinak irakurri ditzakegu, ezagutzen ditugunak kontatu, berriak asmatu, eta gainera ipuinekin jolastu ere egin dezakegu. Adibidez: ipuinetan aldaketak sartzea (pertsonai berriak, pertsonaien izaera aldatu, amaiera aldatu...), ipuin berri bat hartzen dugunean kontatu aurretik azala ikusi eta zertaz izan daitekeen hitz egin edota marrazkiak ikusi eta orri bakoitzean zertaz arituko den hitz egin, ondoren ipuina irakurri, dagoeneko ezagunak diren ipuinen kasuan guk ipuina irakurri beharrean haiek guri kontatzko eskatu, eta abar.

#### Eta bide honetan lagungarriak izan daitekeen beste edozer:

- Antzerkitxoak egitea txotxongiloekin, hizkuntza erabiltzea eskatzen duten jolasak egitea (Ikusi makusi adibidez), eta abar.

## Inguru hurbilean euskara zaintzea

---

Gertuko harremanetan hainbat hizkuntza entzun eta bizitu ditzakete gure seme-alabek. Bereziki euskararen erabilera soziala oso handia ez den kasuetan, inguru hurbil horretan euskara entzun eta erabiltzeko aukera eman behar genieke.

### Adibidez:

- Seme-alaben inguruko beste gurasoekin harremanak euskaraz izan daitezen saiatu, hainbatek jakingo baitute.
- Denda edo komertzio batean sartzean, euskaraz eskatu eta dendariak euskaraz baldin badaki, harremana euskaraz sortu. Are gehiago, batzuetan gure seme-alabek ere beraiekin hitz egin dezaten egoera bideratu dezakegu: beraiek eskatu edo ordaindu dezatela, adibidez.
- Inguruan euskaraz izan ditzakegun gune edo egoerak baliatu: kultur etxean euskaraz egin langileekin eta liburutegian euskarazko liburuak ere hartu, euskaraz diren ekitaldietara joan seme-alabekin eta abar.
- Kaletik goazenean guraso berritsuak izan eta euskarazko kartel edo errotuluei erreferentzia egin.

## Beste hizkuntzekiko jarrera egokia transmititzea

---

Gure seme-alabek hizkuntza bat baino gehiago ondo ikastea nahi dugunez, euskaraz gain beste hizkuntzak ere zaindu beharko ditugu.

### Gaztelania:

- Eskolan landuko dute eta testuinguru gehienetan kaleko hizkuntza indartsuena da. Ondo ikasiko dute. Baina noski, jarraipena egin eta irakasleekin hitz egin ikaste prozesuari buruz. Kasuren batean hizkuntza behar bezala garatzeko zailtasunak baldin badituzte, beste edozein ikasgairen moduan lagundu: eskolako lanekin lagundu edota kanpoko laguntza bilatu.

### Ingelesa:

- Hizkuntzarik internazionalena da eta haur gehienek hirugarren hizkuntza moduan ikasten dutena. Interesa erakutsi eta ikus dezatela ingelesa ere ondo ikastea nahi dugula. Bereziki hizkuntzarekin harremana zaindu: disfrutatu dezatela hizkuntza horretan ere eta dezatela soilik lotu ikasi behar den arlo batekin.

### Inguruan ditugun beste hizkuntzak:

- Gure ingurua eleanitza da eta hori bistaratzea eta horri balioa ematea positiboa izan daiteke seme-alaben sozializaziora begira. Hau da: mundua eleanitza da eta eleaniztuna izatea da ohikoena. Ikasten ditugun hizkuntzak gure egiten ditugu eta gero eta gehiago ikasi ditzakegu gainera. Norbere hizkuntzak erabiltzeak eta zaintzeak ez gaitu hobeak edo txarragoak egiten, baina euskara jakitea eta erabiltzea adibidez, Euskal Herritar izateko modu berezi eta aberatsa da.